

ehbildu

**Maite
duzun
Zeberio**

UDAL PROGRAMA 2023

EGINGO DUGU.

Lau urteren ostean, hauteskundeak ate joka ditugu berriro ere. Datorren maiatzaren 28an Zeberioiko Udala osatuko duten zinegotziak aukeratuko ditugu, hau da, gu guztion bizimoduaren hainbat arlo arautzen dituen erakundearen antolaketa erabakiko dugu. Izan ere, nahiz eta beste hauteskunde batzuek komunikabideetan oihartzun handiagoa izan, udal hauteskundeek ere berebiziko garrantzia dute, arestian azaldu bezala, udal jarduerak eragin zuzena baitu gure egunerokoan. Zelan lortu daiteke Zeberio bizigarri bat? Zer egin beharko litzateke zeberioztar guztiok hobeto bizi gaitezen? Hori da jokoan dagoena eta ez da erronka makala baina aipatutako guztia erdiesteko zaku bete proposamenekin dator EH Bildu.

Hala ere, gure ardurak, jomugak eta asmoak ez dira eguneroko bizitza hobetzera mugatzen. Eman beharreko botoak haratago doan esangura zabalagoa dauka. Euskal herritar guztiak ditu EH Bilduk ardura iturri eta, horregatik, Ipar Euskal Herriko EH Bairekin bat eginda euskal lurralde osoa barne hartzen edo barne biltzen duen mugimendu municipalista osatzen du. Euskal Herriko zinegotzi eta alkate guztiak elkartzuz, udal bizitzari eta, oro har, euskal herritarrei eragiten dieten arazoei irtenbide duinak emateko elkarlanean aritzen baitira. Beste modu batera esanda, benetan uste dugu Zeberiotik ere geure hondar alea jarri dezakegula Euskal Herriak nazio modura iraun dezan.

Esan beharrik ez dago, zentzu honetan, gizarte konplexu eta anitz batean bizi garen heinean, eman beharreko irtenbideak ere askotarikoak direna. Desberdintasun sozialek, krisi energetikoak, errefuxiatuek eta gerrak, biztanleriaren zahartzeak, naturarekin dugun harreman eztabaidagarriak edo kultura desberdinen arteko bizikidetzak, besteak beste, erantzun sakonak, demokratikoak eta justizia sozialean oinarritutakoak eskatzen dituzte. EH Bilduk Zeberion egin nahi duen udalgintzak eta herrigintzak soluzio horien guztien parte izan gura du, herriak baduelako zer esana eta zer eginga, udaletxean zein kalean, Euskal Herri burujabe eta justua eraikitzen saiatzen ari gara.

Herri txikia gara, bai, baina tradizio handi baten oinordekoa. Herritarron arteko elkartasuna eta lankidetzaren oinarri duen auzolana bultzatuko du EH Bilduk. Apaltasunez baina tinkotasunez, Zeberio maite dugulako, zeberioztarrak garelako eta uste dugulako merezi duela geure komunitatearen aldeko lanari ekitea, udaletxean bertan ere bai.

Eta horretarako funtsezkoa da zeberioztarrek herriko arazo guztietan parte hartzea, norbanako legez edota talde gisa: gazteak eta edadekoak, emakumeak, eskolako ikasleen gurasoak, kirol eta kultura taldeak... Finean, Zeberio Udalaren zeberioztar guztiona izan dadin.

Mait duzun Zeberio

1. UDALETXEA, ZEBERIOZTAR GUZTION ETXEA

Herriaren beharretara egokitutako administrazio ereduak eraiki behar dugu. Zinegotzi guztien eta udal-langileen konpromisotik eta inplikaziotik abiatuta, udalak, gure erakunderik hurbilena izanik, ahalegina egin behar du kalitatezko zerbitzuak eskaini eta horiek herritar orori eskuragarri jartzeko. Hala, zerbitzu publikoen eredu garden, parte-hartzaile, demokratiko, euskaldun eta eraginkorra eraikitzeko erantzukizunari eusten diogu.

a) Udalaren kudeaketa: parte hartzea eta gardentasuna

Udalaren funtzionamendua demokratikoa, irekia eta parte hartzailea izatea da gure xede nagusia. Herritarrak izan behar dira protagonista; udal jardunaren zentroa, lehentasuna eta ardatza. Horretarako, demokratizazio prozesu bat abiatu gura dugu: zeberioztarrak gai publikoetara erakarri eta parte hartzea sustatzeko. Funtsean, aipatutako printzipioak baitira, gardentasunarekin batera, EH Bilduren jardunean oinarritzko irizpideak.

Demokrazia ordezkatzailerak -hau da, lau urterik behin herritarron ordezkariak aukeratzea oinarri duenak- sakoneko aldaketa behar du. Aipatutako guztia lortzeko, hots, herritarron parte hartze aktiboa eta zuzena bermatzeko, neurri eraginkorrak behar dira, baita administrazioa gutxi batzuen mesederako erabiliko ez dela ziurtatzeko ere.

Agerian dago egungo egitura politikoak, dinamika instituzionalak eta kudeaketa burokratiko zurrinak herritarrei arrotz zaizkiela eta, honen ondorioz, erabakiguneak urruti daudela sentitzen dute zeberioztarrek, hau da, ebatziak euren interes, iritzi edota beharrezanez erreparatu gabe hartzen direla pentsatzea. Gure udal jarduna gardena izango da. Herritarrek behar duten informazio guztia eskuragarri egongo da modu ulerterrazean eta prozesu zein izapide administratiboetan laguntza eskainiko diogu eskatzen/behar duen orori.

Proposamenak

- Ekintza parte hartzaileak sustatuko ditugu, gai publikoetan parte-hartzea normalizatu dadin. Horretarako, besteak beste, herriko taldeekin etengabe elkarlanean arituko gara.
- Zeberioztarren artean eztabaida sor dezaketen gaiiei irteera demokratikoa emateko, herri kontsultak antolatzeke aukera landuko dugu.
- Udalbatzak maizago eta ordutegi egokiagoarekin deituko dira, herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko.
- Gardentasuna bermatuko dugu, eskura ditugun baliabideak erabilia informazioa zabalduz.

b) Udal Jarduera

Udal jarduerari dagozkion erabakiak udalbatzan hartzea lehenetsiko da. Udal gobernuaren talde izaera indartzea da xedea, eredu presidentzialistatik aldenduz. Zentzu honetan, EH Bilduk zinegotzi guztien talde lana sustatuko du, eta udal-jardunerako dedikazio osoa izango duela kontuan hartuta, alkateari dagozkio batzordeen koordinazio zereginak zein egunerokotasunean burutu beharreko eginkizun eta izapideak.

Proposamenak

- Herritarrek alkatearekin eta zinegotziekin zuzeneko harremanak lantzeko bitartekoak jarriko dira. Alkatearen ordutegia zehaztuko da horretarako eta bestelako baliabideak indarrean jarriko dira udal taldearekin harremanetan jartzeko.
- Udal-zereginak edo betebeharrak eta, bereziki, alkateari egozten zaizkion berezko eginkizunak betetzea bideraezina edo oztopoa izan ez dadin, eginbehar horiek bere gain hartzen dituenak soldata izango du.

c) Baliabide publikoak

Aipatutako proposamen eta asmo guztiak lortzeko tresna nagusia aurrekontuak dira, udalaren proiektu eta egitekoak zehazten dituenak, hain zuzen ere. Hainbat diru iturri daudela kontuan hartuta (Udalkutxa, tasak, zergak...) ezinbestekoa da beharrezko inbertsioak zehaztu eta horien artean lehentasunak ezartzea.

Aurrekontuen egite-prozesua gardena eta partehartzailea izan dadin, funtsezkoa da herritarrei zehaztasunez azaltzea zeintzuk diren baliabide ekonomikoak, baita haien beharrizan, interes, proposamen zein kezkek kontuan hartzea ere. Hau guzti hau, bitarteko ekonomikoen kudeaketa arrazionala, justua, zorrotza oinarri hartuta eta beharrizan konkretuak dituzten kolektiboetan aparteko arreta jarrita.

Proposamenak

- Aurrekontu parte hartzaileak bultzatuko ditugu, beti gardentasuna bermatuta.
- Aurrekontuak deszentralizazio, hurbiltasun, eraginkortasun eta efizientzia irizpideen bitartez kudeatuko dira eta herritar guztion beharrizanak kontuan hartu behar dituzte.
- Udalak, ahal duen neurrian, udal-lan poltsa bat sortuko du bai aparteko premiei erantzuteko bai udal-zerbitzu batzuen esleipenean kontuan hartzeko (esaterako, udal lokalen garbiketa).



2. HERRIA ANTOLATZEN

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) arautzen ditu, besteak beste, udalerriko lurzoru motak, horien erabilera, hazteko/hedatzeko aukerak eta inguruko naturarekin, ezinbestean, sortu beharreko harreman orekatua. Azken finean, egungo eta etorkizuneko udal diseinua erregulatu edo antolatzen duen tresna juridikoa da. Duela gutxi onartutako eta argitaratutako HAPOa EH Bilduko udal-gobernuak bultzatu zuen prozesu parte-hartzailearen emaitza da. Herriko bizilagunen inplikazioarekin, Zeberioaren potentziala eguneratzeko eta garatzeko unea dela uste dugu. Zertan eragingo dugu?

a) Zeberio barruko mugikortasuna eta aisialdirako bideak

Zeberio barruko mugikortasunaren eta aisialdirako bideen hobekuntza erdiestea da asmoa, oinezkoen segurtasuna eta erosotasuna lehenetsiz. Aipatutakoa lortzeko, toki-eskumenak egikaritzeaz gain, udalak eragile aktiboa izan behar du bere jarduera-eremua gainditzen duten edo jarduera-eremutik at dauden alorretan, gainontzeko erakunde edo instituzioekin lankidetzan sustatuz eta indartuz (Bizkaiko Foru Aldundia, URA...).

Hala, trafikoa murrizteko eta oinezkoentzako bideak sustatzeko neurriek lehentasuna izango dute gure jardunean.

Proposamenak

- Baso-pisten erabilera eta mantentze egokia kontrolatzea.
- Auzoak komunikatzen dituzten bide publikoak berreskuratzea.
- Baso bideetan ibilgailuen presentzia zorrotz zaintzea; lehentasuna oinezkoiei eman eta motordun garraiobideak (ingurumenerako kaltegarriak direnak) mugatu.
- Bide publikoen inbentario bat egitea. Alde batetik, horien izaera publikoa bermatzeko eta pribatizazioak saihesteko. Bestetik, auzokideen artean sor daitezkeen gatazkak ekiditeko

- Bidegorria egiteari ekitea, zatika bada ere.
- Plazaren eta eskolaren arteko oinezkoentzako ibilbidea gauzatzea.

b) Etxebizitzaren eskaintzaren dinamizazioa

Etxebizitzaren alorrean Zeberioko egoera zinez paradoxikoa da. Izan ere, bizilekua aurkitzea zaila den arren, bistakoa da hainbat eta hainbat baserri jausten ari direna. Horrek guztiak duen galera arkitektoniko eta kulturalaz gain, gazteei bereziki zaildu edo oztopatzen die etxebizitza bat eskuratu, herrian bizi eta etorkizuna bertan garatzeko aukera.

Proposamenak

- Aipatutako egoera paradoxikoari soluzioa emateko etxebizitza-politika egokia sustatzea.
- Gazteei eta sektore zaugarrienei zuzendutako alokairurako laguntza-programa bat ezartzeko aukera aztertzea.
- Udala agente aktibo bihurtzea jabeen eta balizko maizterren arteko bitartekari lanak eginez, eskuragarri dauden etxebizitza kopurua handitu dadin.

c) Lehen sektorea: gure lurra, gure produktuak

Nahiz eta Zeberioko paisaia landatarra izan, herritar gehienek lehen sektorekoak ez diren beste arlo batzuetan dihardute.

Oro har, nekazaritza, abeltzaintza edo baso-ustiapena ez dira, honezkero, diru-sarreren iturri nagusia. Hala ere, elikagaien krisi globalak, produktu ekologikoekiko interesak eta zero kilometroko elikagaien kontsumoaren aldeko apustuak argi adierazten digute gure ingurumenarekiko hurbilagoak eta arrazionalagoak diren beste ekoizpen-modu batzuk bilatzeko aukera dagoela. Zeberio badu paradigma-aldaketa horretarako esparru ideala eta, EH Bildutik, ekoizpen jasangarria izango duen lehen sektorearen aldeko apustu irmoa egiten dugu, bertan lan egin nahi dutenen etorkizuna bermatuko duena, hain zuzen ere.

Proposamenak

- Irizpide ekologikoetan eta tokiko merkatuaren irizpidetan oinarritzen diren nekazaritza eta abeltzaintzako garapen proiektuak sustatu eta horien hazkundean laguntzea. Horretarako, udalak eskura dituen baliabide eta bitarteko guztiak jarriko ditu.
- Nekazalgune proiektua suspertzea, gure nekazaritza-politikaren oinarritzko ardatz gisa, bi helburu nagusirekin: alde batetik, lehen sektorea sustatzea eta, bestetik, bertan lan egin nahi dutenentzat aukerak sortzea.
- Zeberioko ekoizleen kontsumo-sare bat antolatzea, eskola edota adinekoen egoitza bezalako funtsezko eragileekin elkarlanean. Horretarako, aipatutako proposamena gauzatzeko, lantalde bat sortzea proposatuko dugu.
- Zeberion bertan merkatu txikiekin produktuak kontsumitzaileei zuzenean hurbiltzeko aukera ematea.
- Espezie autoktonoak eta ekosistemaren oreka bultzatuko duen baso-politika sustatzea, bai udal-titulartasuneko mendietan bai mendi pribatuetan, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, hau lortzen lagunduko duten plan eta laguntza ekonomikoak ezartzeko.
- Gure herriaren baso-hobekuntzan lan egitea. Basoa eta abeltzaintza orekatzeko alternatibak bilatzea, substratua aberastuz, basoak garbituz eta ekosistema bera eta espezie autoktonoak hobetsiz.
- Sute arriskua ahalik eta gehien murrizteko, udal-eskumenen esparruan eta herritarrekin lankidetzan, lursailen kontserbazioa eta baso-garbiketa sustatuko da.

3. INGURUMENA: NATURA ETA GIZAKIA HARREMAN OREKATUAN

EH Bilduren lehentasunetako bat da egungo ingurumen-kudeaketa eredu aldatzea, garapen jasangarria eta interes ekonomikoen zein ingurumenaren kontserbazioaren arteko oreka lortzeko.

Eredu horretan, herritarrak eragile aktibo izango dira, posible den heinean, ingurune naturaletan giza inpaktua murrizteko.

Ingurunea zaintzea herritar ororen ardura eta eginkizuna da, erantzukizun kolektiboa. Horregatik, EH Bilduk aurreko urteetako lan-ildoari jarraipena eman nahi dio, zeberioztarrak honako zereginetan inplikatur: errekastoak eta material kutsatzaileko basoak babestea, gure etxeetako hondakinen kudeaketa konpostatzera bideratzea, energia-kontsumoko ereduak aldatzea,...

Proposamenak

- **Basogintza politika eta kudeaketa.** Baso ustiatzea eta egurraren erauzketa ezin da izan basoarekin dugun harreman bakarra. Erabilera intentsibo huts edo soil horretatik aldendu eta paisaiaren zaintzan, turismo jasangarrian, abeltzaintza-eredu bateragarrian eta baliabide mikologikoetan eragina duten beste ikuspegi batzuk, bai ingurumenekoak bai ekonomikoak, landu eta sustatu behar ditugu.

- Funtsezkoa da udal **basogintza plan** bat egitea epe luzerako politikak diseinatu eta bilduko dituen. Hala, baso-kudeaketa iraunkorreko ereduaren barruan hainbat eremu hartu beharko ditu kontuan; irizpide ekonomikoak, sozialak zein biodibertsitatearen zaintza, esaterako.

- **Ur-baliabideak.** Klima aldaketaren ondorio nagusietako bat da uraren krisi globala areagotzea. Errekastoak eta iturriak emaritsu mantentzeaz gain, ur-bilketak zaindu eta balioetsi behar ditugu, gero eta beharrezkoagoa den baliabide bat optimizatu asmoz.

- Nahitaezkoak diren izapideak burutuko ditugu udalak kudea ditzan Ur Partzuergoaren sarean sartuta ez dauden udalerriko ur-bilketak.

- Saneamendu-sarea zaindu eta osatu behar da: eraikin batzuk oraindik ez daude sarera konektatuta; hausturak izanez gero ur zikinak isurtzen dira edota sarearen ikuskapen orokorra egin ondoren beharrezko konponketak egingo dira.

● **Krisi energetikoa:** Goiener bezalako kooperatiba energetikoekin elkarlana bultzatu behar da baita energia kontsumo komunitateak herrian sustatu ere.

● **Hondakinak.** Etxe hondakinen kudeaketak eta tratamendu egokiak lagungarri edo mesedegarriak izango lirateke ingurumena zaindu, errespetatu eta oreka jasangarria lortzeko bidean.

- Kontsumo ohitura arduratsuak landu eta zabaldu edo hedatzea eta herritarren sentsibilizazioa eta ingurumen-hezkuntza sustatzea. Etxeetan sortzen ditugun hondakinen kudeaketa egokia sustatu behar da.

● **Espezie inbaditzaileen mehatxua** ekiditeko sentsibilizazio kanpainak egitea.

● Ingurumena eta aisialdiaren esparruan, **mendiko ibilbideak** garbitu behar dira, seinaleak ipini eta horiek mantentzeko irizpideak finkatu edo zehaztu. Ildo berean, dauden aisiaguneak berritu eta egokitu behar dira. Horrez gain, funtsezkoa da auzoetako bide zaharrak zerrendatzea, berreskuratzea eta seinaleztatzea, baita horietan dauden bankuak berritzea ere, elkargune gisa funtzio bikaina betetzen baitute.

● **Autoek okupatzen duten espazioa zehaztea eta autoen erabilera partekatua bultzatzea.** Udalak hausnarketa eta eztabaida prozesua sustatu behar du, gure herrian autorik gabeko espazioak zeintzuk izan daitezkeen zehazteko. Bestalde, garraio publikoaren gabeziak kontuan hartuta, autoak partekatzeko aukera aztertzea eta bultzatzea komenigarria litzateke.

4. GIZARTE ARLOA: BERDINTASUNA ETA ZAINITZA

Zeberio ez da bakarrik Ugaotik Arteara doan lur eremua; hori baino askoz gehiago da. Zeberio, batez ere, bertan bizi den jendea da, mila bizilagun baino gehiago dituen herria, eskubide berdinen jabe baina askotariko premia eta interesekin; haurrei, gazteei, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan edo zaurgarritasun egoeran dauden beste sektore batzuei eragin diezaieketenak.

Gure helburua gu guztion bizi-baldintzak hobetzea den heinean aipatutako kasuistika, egoera eta beharrizan anitzak kontuan hartu behar ditugu.

EH Bildun jakin badakigu adierazitako desoreka horien erroan sistema kapitalista eta patriarkala dagoela eta horiei aurre egiteko oinarritzkoa da subiranotasun politiko eta ekonomiko handiagoa lortzeko bidean aurrera egitea. Bitartean, orain arte egin bezala, EH Bildu ahaleginduko da muturreko desoreka kasuetan esku-hartzen. Horretarako, funtsezkoa da baliabide material eta giza baliabide guztiak dituzten gizarte zerbitzuak izatea, norbanakoon elkar zaintzari uko egin gabe, jakina.

Proposamenak

- **Adineko pertsonekin eta erretiratuekin** elkarlanean jardutea euren beharrizanak zehaztu eta horiek asetzeko.
- Erretiratuen elkartearekin lankidetzan aritzea.
- Gizarte-zerbitzuen bitartez eguneko zentro baten balizko beharrizana aztertzea edo, hori posible izan ezean, dagoeneko martxan dauden zerbitzuetan eta herritarrek erabiltzen dituzten zentroetan ezar daitezkeen hobekuntzak egitea.
- Emakumeoi tradizionalki egotzi zaigun mendekotasun-rola behin-betiko deuseztatzeko nahitaezkoak diren neurriak hartu eta berdintasun politikak sustatzea. Genero-berdintasun printzipioa

presente egongo da gure eguneroko jardun politikoan eta aintzat hartu beharrekoa izango da erabakiak hartzerakoan. Genero indarkeriaren eremuan bereziki sentiberak izango gara, bai prebentzio-politikak sustatuz bai biktimen zerbitzurako dauden tresnekin (laguntza ekonomikoak, etxebizitzaren alorrekoak, laguntza psikologikoa, ...).

- LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak errespetatu daitezkeen gogor egingo dugu lan, garapen erreala eta eraginkorra sustatu eta edozein diskriminazio-egoeretan esku hartuz.
- Berdintasunean eta hezkidetzan oinarritutako kultura berdinzalea eta integraztailearen bidean, Zeberioko eskolaren lankidetzara bilatuko dugu, ezinbesteko tresna baita helburu hori lortzeko.
- Etengabeko harremana izango dugu gazteekin zuzenean eragiten dizkieten arazoak eta (etxebizitza, aisialdia, kultur eskaintza falta...) eta planteamenduak gertutik ezagutu eta horiei irtenbidea emateko baita haien ekimenen konplize izan ere.
- Familia eta lana bateragarri egitea sustatuko dugu. Hori lortzeko, besteak beste, udalekuen iraupena eta ordutegia luzatu eta parte hartu nahi duen udalerriko nerabe eta haur guztiei horretarako aukera bermatuko diegu. Hots, eskaintzen diren plazak eta parte hartu nahi duten umeen kopuruak bat egitea.
- Komunitate-zentzua indartuko dugu elkarrekiko zaintza sustatzeko.
- Behar diren baliabide guztiak jarriko ditugu zaintzaileen eskura (informazioa, hitzaldiak, jarduerak, tailerrak), etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
- Ikuspegi globala eta solidarioa ere izan nahi dugu. Hargatik, EH Bilduk bat egiten du Ongi Etorri Errefuxiatuak mugimenduari eta honen aldarrikapenekin. Halaber, elkarrekin lana bultzatzeko konpromisua hartzen du, adibidez, Sahara edo senidetutako herriekin nazioarteko lankidetzara indartuz.

5. ZEBERIOZTARREN ONDARE KULTURALA ZAINTZA ETA BERRITZA

a) **Kultura: gure nortasuna**

Gizabanakoen eskubide unibertsala izateaz gain, kulturak nortasuna ematen dio herriari, hau da, kulturak berak zehazten du, hein handi batean, herri baten izaera. Ohitura, ezagutza, tradizio eta sinesmen multzoa elementu kohesionatzailea da, tresna ezin hobea auzotarron arteko loturak indartzeko baina, horrez gain, bizi dugun errealitate kultural anitz eta aberatsaren isla ere bada.


Ezinbestekoa deritzogu kulturari inbertitzeari. Ekimenak ekonomikoki sostengatzeaz gain, gure artean, egunerokotasunean, sortzen diren kultura-forma guztiak sustatzearen aldeko apustua egiten dugu. Hau da, finean, herritik sortutako kultura herritarren eta herriaren zerbitzura jartzea.

Badago herrian horretarako aukera; banakakoek, elkarteek zein erakundeek osatutako egitura bat dugu, kultura-proiektu integratzaile eta anitza sor dezakeena, talde, genero eta belaunaldi desberdinen arteko harremanak sustatuko dituen, betiere bakoitzaren ezaugarri eta interes partikularrak errespetatu eta kontuan hartuta.

Udalak badu zeresana eta zeregina alor honetan, hala nola, kultura batzorde parte hartzaileak areagotu eta sustatu baititzake, udalerriko kultura eragile guztiei modu aktibo eta iraunkorrean parte hartzea bermatuz.

Proposamenak

- Udala bereziki ahaleginduko da Zubialde Eskolaren eta Guraso Elkartearekin etengabeko lankidetzan aritzea, Zeberioko instantzia zibil edo eragile nagusienetakoa baita. Hala, aktiboki parte hartuko du Eskola Kontseiluan baita guraso elkarteak antolatutako ekimenak bultzatu eta lagundu ere.
- Herriko talde guztien arteko komunikazio-sarea indartzea, lankidetzan eta koordinazioan oinarrituta. Modu honetan kultura programazio zabalagoa eta anitzagoa eskaini ahalko da. Jarduera horiek behar bezala iragarriko dira (kartelak, sare sozialak eta bestelako komunikazio bideak).
- Kultur topagune bat sortzea bultzatuko da artisauen ekoizpena garatu, erakutsi edo plazaratu nahi duenarentzat. Horretarako: batetik, udalak kultur eragileentzat eskuragarri jarriko ditu bere lokalak eta, bestetik, Zeberioko eragile edo artistak saritzen dituen lehiaketa/lehiaketen antolaketa baloratuko du.



b) Euskara

Argitaratutako azken datuen arabera, kezkarria da euskararen erabilera egoera eta gainbehera zantzuak ageri dira ustezko arnaguneetako zenbait datutan. Hau guzti hau are kezkarriagoa da Zeberioiko biztanleen gehiengo euskaldunak direla aintzat hartuta. Herriari buruzko azterketa soziolinguistikoei erreparatuz, herriko biztanleriaren $\frac{3}{4}$ euskalduna izan arren, familia edo etxe euskaldunen heren batean bakarrik izan ohi dira harremanak euskaraz.

Proposamenak

- Udal kultura batzordeak jarraipena eman nahi dio orain arte hurrekin, gurasoekin eta Zeberioko gainontzeko bizilagunekin egin den lanari, hala nola, euskara ikastaroei, egutegiaren banaketari, haurrentzako udalekuei edota abenduko kultura programari.
- Euskararen erabilera sustatu eta indartzeko, kanpainak diseinatuko dira hainbat sektore eta unetan, euskarako udal-teknikariarekin batera eta alor honetan dihardutenekin lankidetzan (esaterako, AEK). Azpimarragarriak dira, besteak beste, Euskaraldia egitasmoa, Korrika edo Berbalagun ekimena.
- Euskara sustatzen duten inguruko **hedabideak (Begitu eta Geuria)** diruz laguntzea.



c) Gure ondare kulturalaren zainketa

Gure kultura ondarea balioesteko, zaintzeko, kontserbatzeko eta ezagutarazteko ahaleginak egingo ditugu: baserriak, errotak, dorretxeak, baselizak, zubiak, iturriak, galtzada, haitzuloak, kirikinohesiak, errementari museoa, usadio eta ohiturak, kantak, eta abar.

Proposamenak

- Gure ondarea ezagutu eta ezagutarazteko, **txangoak eta irteerak** antolatuko ditugu, bai udalaren ekimenez bai kultura taldeei horretarako laguntza emanaz.
- Lan honetan eskolaren parte hartzea ezinbestekoa dela uste dugu; gidoiak, bide-mapak edota gida didaktikoak osatuz.
- Auzolana funtsezkoa da gure ondarea berreskuratzeko, besteak beste, kirikiñohesiak egokitu edo atontzea.
- Era berean, gure ondarearen hainbat elementu konpontzeko dirulaguntzak lortzeko ere lan egingo dugu. Hala nola, Zubibarriako errotara sartzeko tunela, Ugarte auzoko bainuetxeari lotutako azpiegitura edo Areiltzako Arandi errota.
- Dibulgaziozko argitalpenak sustatuko ditugu:
 - Zeberioko auzoak: deskribapen orokorra, baserriak, tradizioak, ohiturak, ondarea, pertsonaiak...
 - Zeberioko ateburuen harrizko inskripzioak (50 daude): datak, jabeak, sinboloak...
 - Zeberioko elkarte-sareak: auzolana, lorra, ordea, auzo-eskola, Sutearo, ganadu edo abere hermandadeak, kooperatiba elektrikoa...

EGINGO DUGU.

d) Udal lokal publikoen kudeaketa

Kultura jarduera antolatuei bide emateko, udalak ahal dituen baliabideak eskainiko ditu, besteak beste, udal lokalak.

Herritarren zerbitzura egon behar dira, elkarte ezberdinen elkargune izateko, gazteen aisialdirako eta sormenerako gunek bihurtzeko, ikasteko leku aproposak egoteko eta, oro har, herriko bizi kulturala suspertzeko.

Proposamenak

- **Liburutegia eta erabilera anitzeko lokala.** Liburutegiaren ziklo berri bati ekiteko garaia da. Zinez baliagarriak eta aprobetxagarriak diren espazio fisikoak, Zeberioako bizitza kulturala garatu eta suspertzeko interesgarriak suerta daitezkeenak, alferrik galtzen ari gara. Udaletzeko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko aretoan liburutegi bat jartzea ez ezik, bestelako jarduera batzuk ere har ditzakeen gunea sor daiteke; hala nola beharrezko erosotasuna, isiltasuna eta lasaitasuna izango duen ikasgela bat. Bestalde, hitzaldiak, erakusketak, tailerrak eta abar antolatzeko gunek aproposa da.
- Garrantzitsua da **udal-instalazioak** behar bezala mantentzea, besteak beste, eskola zaharreko txokoa eta pilotalekua, elkargune komunitario eta bizikidetzarako funtsezko espazioak baitira.

e) **Kultura: kirola eta aisialdia gure ohituretan**

Hainbat faktorek baldintzatzen dute gure bizi-kalitatea: aisialdi aktiboak edo modu desberdinetan egin daitekeen ariketa fisikoak (baratza zaindu, paseatu, kirol-instalazioak erabili...).

Proposamenak

- **Kirola sustatzeko** sentsibilizazio kanpainak antolatzeaz gain, jarduera fisikoa egitea erraztu edo bultzatzen duten ekimenak behar dira. Zentzu horretan, autoaren erabilera murrizteko eta oinez edo bizikletaz mugitzeko alternatibak bilatu eta lehenetsi behar ditugu.
- **Kirol-azpiegitura** publiko, ireki eta ekonomikoak sortzeko, titulartasun publikoko gimnasio txiki bat kokatzeko, hornitzeko eta hura martxan jartzeko aukerak aztertuko ditugu.
- **Kirol-ekitaldien** antolaketan, edo horiek sostengatu edo laguntzetik aparte, lehentasuna emango diegu herritarrek parte har dezaketen kirol edo ariketa fisikoa ahalbidetzen duten jarduerari, eta ez ikusle huts gisa bideratuta daudenei.
- **Mendi ibilaldiak eta herri kirolak** bultzatuko ditugu, Zeberioko elkarte eta taldeekin lankidetzan.



ehbildu

¡Es posible!